


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

226n. zenbakia
zezeilla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



OLEAGA TA ETXEBARRIA'tar JESUS (19..-1998)

- LEGE-GIZONA TA LAGUNTZAILLEA
- "EUSKERAZALEAK" ALKARTEA'REN SORTZAILLEA,
BAKDIDEA TA LENDAKARI IZANA
- EUSKEREAREN BULTZAGILLEA
- ZULAIBAR IKASTEGIAREN SORTZAILLE BAT

INAUTERIAK ETA ARATUSTEAK

—Gogoratzen aiz, Joxe, nola gebiltzan aterik ate, erriko kaleetan, Ostegun Gizen egunean, onela kantari:

Otsaliko, Otsaliko
nik otsoa biziik ilko;
okela bat eta okela bi
nere burruntzie bete bedi?

—Burruntzia eskuetan genduela, saiaski, solomo eta Iukaika-zatiren baten zai.

Bañas Ataun'en era onetekoa zan abestia:

Otsaliko, Otsaliko
ni basora joan da
otso aundi bat
ekarriko, ekarriko.
Nei lukaika mutur bat
ematen ez diñai
tripati aun-ea burruntzie
sartuko, sartuko...

—Ataun'en basatiago dituk Lazkao'n baño. Napparroa'ko Huizi'n, berriz, onela?

Zistor, miztor,
emakunde.

Zer esan nai ote dau Emakunde berbak?

—Emakunde, Gizakunde eta Orokunde, orra iru itz alkarregaz zer ikusirik badutenak.

—Zer esan nai dabe?

—Ona beuren esan naia:

Gizakunde zan gizasemeen eguna.
Emakunde, emakumeena.
Orakunde, guztiena.

—Eta, zer dira iru egun onek?

—Iñauteri aurreko iru ostegunak edo eguenak, era onetara:

Gizakunde egunean konbita andreak egiten
eutson gizonari.
Emakunde egunean, gizonak andreari.

Orakunde egunean, zer?

—Batak besteari. Orra Iñauteri edo Aratuste aurreko iru ostegunen festak.

—Eta, Iñauteriak zer dira, ba?

—Iñauteriak, Aratusteak, Zaldun iyoti eta Karnabalak danak dira bat.

—Karnabalik gabeko erririk ez zan gure artean: Mamuak eta mozorro-jantziak baztar guztietan.

—Iñauteriak ez ziran gaurkoak: 1682'garren urtean, San Juan, San Pedro eta San Marzial'eko iñauteriak debekatzen dauz, alkateak Oiartzun'en.

—Sanjuanetan be, egiten ebezen Aratusteak ,ala?

—Orduan, bai. Geure egunetan, ordea, Kandelariotan (2—IT) asita Austerre egunerarte irauten eben karnabalak Oiartzun' en.

—T Jantzi, zelan jazten ziran?

—Buruan ardi-narruagaz egindako mozorro bat; andrearen soñeko bat edo oiaren estalkia. Eskuetan, berriz, "Sorgin-Goizak" (Sorgin-artasiak).

Bañan, zer da mozorro?

—Mozorro, zomorro, mamarro, mamurro, mamurra ta mamu izen eta berba berdintsuak dira.

—Zer esan nai dabe?

—Karnabaletako jantziak eta izate txiki itsusiak, sorgin txikiak...

—Galtxagorri eta Familierrak en antzekoak? Eta zer-ikusi dabe Kamabalekin?

—Izena antzekoa eta gañera izate txiki oiek, jostorraz-on-tzitxo batean gordetzen diranak, orretzek ematen deutsez aztiei beuren indar bereziak

—Aztiak orain, berriz?

—Aztiak be, ardi-narruz jantzita ibilli oi ziran aztikeriak egiteko; ardi-narruz eta edozein abere-narruz.

—Karnabaletan: xintxariak be, izaten dira.

—Bai, galantak Zubieta eta Ituren'en; eta dantzarien anketan ugariz.

—Dantzak be bai.

—Sorginak, aztiak, abere-jantziak, txintxariak, dantzak... Ez ote dute zer ikusirik gure arbasoen leize zuloetako bizi-erakin?

—Koba-zuloak ez al dagoz urrun?

—Geure sustraiak be urrun dagoz. Koba zuloetan izaten ebezan geure aurrekoek euren elizkizunak: an egiten ebezen euren aztikeri eta sorginkeriak animalien marrazki-aurrean... Aztiak mozorroz jazten ziran sorginkeriak egiteko; sekulan be ez, giza-itxuran. Ritual-dantzik ez zan paltako.

—Nik usten dot, orrela mintzatzea, gauzak urrunera eramatea dala.

—Gure zuzterrak koba-zuloetan ba'dagoz, geure odola andik ba'dator, geure oituren kutsua (Iñauteriak dira orretariko batzuek) be, andik datoztela pentsa genezake. Badogu orreterako eskubide.

—Baña, ez dozu esan txintxariak zertarako diran?

—Espiritu txarrak uxatzeko, urrunera botetzeko.

ANES ARRINDA



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

OLEAGA TA ETXEBERRIA'tar JESUS

(G. B.)

Adiskide ta lankidee zintzo batek egin dausku agur. Larogeta iru urtekoa dala joan jaku Oleaga'tar Jesus. Adiskideen agurra beti izaten da samiña, baiña ori era bereizi baten da egia gure adiskide au joan jakunean.

Berak ainbeste maite eban ZER onetan lan egiten dogun guztiok eta irakurleen artean geienok ez dogu ain arin aitzuko adiskide au eta gaurko onetan beiako bere sendiari euren eta gure samintasunaren alkar-banatzte au.

ZER IZAN DAN

Jesus beste ezer baiño lenago euskalduna eta euskera-zalea izan da. Nazario bere aitagandik artu eban, gero berak landu dauan zaletasun au eta ume-aroko bere lagunak Zeanuri'n ondo gogoan daukez urte latz areik. Ainbat Zanuri'tar ikusi doguz illeta-egunean.

Gaiñera Jesus, lanbidez, lege-gizona izan da. Askotari-ko euskaldunak joan izan dira bere laguntzaren billa arlo onetan, baiña euren artean asko baserritarrak eta giza-mailla apalekoak. Eta lege-gizon lez laguntza aundia eskiñi eta emon dau euskerearen arloan, bai Agintaritzta gogorraren aldi latzetan eta bai oraintsuago.

Berrogeta bost urte dira nik Jesus ezagutu nebala. Ubi-dea'n izan zan. Ni antxe nengoan, abade-egin-barri nintzala, Zadorra'ko ur jauziak egiteko lanak bizi-bizi egozanean. Egun baten eskutitz bat egin eustan Jesus Oleaga, nik ezagutzen ez neban lege-gizon batek. Egun bat aukeratu eta alkartu egin gifian. An langille asko ebillan orduan, bi milla edo iru milla, eta Jesus langille baten billa etorri zan, etxetik iges egin eta iñon aurkitu ezin eben langille baten billa. Egin gendun berba arduradunakaz, baiña ez dakit arazoa zertan geratu zan. Beintzat, an-etzkeroko adiskide eta lankide izango zan euskaldun on bat ezagutzeko aukerea izan neban.

EUSKERAZALEAK

Egun baten, Arenaza'tar Josu bitarteko zala, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'n lan egiteko deia artu gendun. Oleaga zan Lendakaria alkarte onetan eta geure lanerako gogoag agertu geuntsan, baita ZER aldizkaria argitaratzeko eginbidea be. Pozik artu giduzan Jesus'ek eta bera laguntzaille zala asi gintzazan lanean gaur be orretan diardugunok.

Bera zan Alkarte onen sortzailleetariko bat. Lege-gizon lez orduan oso gauza gatxa zan egitasmu au bideratzeko aleginak egin ebazan eta ondoren ona lortu be bai. Ez zan

bakarrik egon asiera aretan. Laguntzaille oso ezagunak izan ebazan: Adrian Zelaia, Makua, Montiano eta abar...

ZULAIBAR LAN-IKASTEGIA

Zeanuri, Oleaga'tar Jesus'en jaioterrian dago gaur Zulaibar Lan-Ikastegi ederra ta egokia. Jesus sortzailleen taldean aurkitu neban ni ara joan nintzan 1970n. urtean eta beti izan da ikastegi onen laguntzaille. Ez bakarrik, talde orretakoak ziran Arregi maixua, Rotaetxe, Zubizarreta, Pedro Atutxa abadea eta beste batzuk.

Arratia osoarentzat eta geroago beste lurralde batzuta-ko gazteentzat laguntza aundia izan da eta da ikastegi eder au. Amar urtetan ainbat batzarretan izan giñan batera.

GIZA-IZTI ASTE BI BILBAO'n.

Deustu'ko Ikastetxe Nagusiagaz berbatuta eta talde baten barman Bilbao'n izan ziran Antropolji-aste ospetsu bi areitan bultzagille sendoa izan zan Jesus.

Urte bitan egin ziran aste gogoangarri orreik eta liburu crier bitan argitaratu ziran an izandako itzaldiak. Benetan lan txalogarria.

EUSKO IKASKUNTZAN

Guztiok ezagutzen dogu EUSKO IKASKUNTZA deritxon antxiñako erakundea. Ez naz neu erakunde orretan kideko izan eta ba-dakit beste lekuren baten agertuko dana Jesus'ek or egindako lanen eta ekintzen barria. Ez naz luzatuko ba arlo onetan ezer esaten.

ILLETA

Aurtengo urterillaren zazpigarren egunean, arratsalde-ko zortziretan eta Fernando Deuna izeneko bere parrokian izan zan illeta: Manterola'tar Ander adiskidea izan zan ospatzaillan buru eta beste sei abade here inguruan. Jentetza ugari batek bete eban eleiza audi ori. Pozez ikusi gendun geiena euskerez izan zala, naizta banakako erdeldun batzuk esan euskerea larregi erabilli zala

Euskereak, batez be Bizkai'ko gure euskereak, laguntzaille aundi bat galdu dau. Emen geratzen garanoi dagoan lekutik bere laguntza emongo dauskula uste dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek

URTE BARRIA

Urtero bezela, utsik egin barik, etorri dira, aurten be, Gabonetako jaiak, badakigun arren ez dabela luzeroan irauten eta begiak itxi-idegi baten, igarri gabe aldenduko dirala, auxe be, urtero bezala.

Ez dagola zalantzarik uste da, onelako urtea, beste edo-zelako urte bete geiago izango dala, gutxi gora beera, azkenengo urteen antzerakoa, motel xamarra; baleiteke ganora eta taixu barik egutegiari banan-banan eguneroko orriak kendu ondoren desagertuko dana.

Badira diñoenak, beintzat telebistako ia egitarau guztiak zabaldu daben albistea izan ei da, batzuk bene-benetan, beste batzuk erdi zalantzetan, 1.998 garrengo Urte Barria ekonomiari buruz itxaropentsua izango dala, auxe eta beste, baita lanpostu barrien sortzaille, etabar, nunbait.

Azkenengo barri au, egia balitz, baleiteke entzuteko prest eta pozik gengokezala, orain arte entzundako guztiak ez dauskuelako adore edo atsegin larregirik emon. Alde batetik lanpostuak sortzen dirala, bestetik paroa edo laneza audituz doala. Jentea lanetatik kanporatua geiagotu egin dala. Egoerea ez da argiegi ulertzekoa, baina dakienak daki, eta ekonomiari buruzko gaien arloan mintzatzen diranak, ondo ikasiak ei dira orretaz.

Urte onetan zer gertatuko danari, zuur, begira egotea Iitzakigu egoki, ez dakigulako nori jaramon egin. Gauzak ondo doazala kanpai joka ari diranai, ala motel, urduri eta itxaropenak galduta dagozanai —geienak errazoi guztiaz, jakiña, lanpostua galdu edo galzorian egonda, kale gorrian, esan leitekenez—.

Beraz, Euskalerriko etorkizunaren ikuspegia, urrunera hegira, —edo urrutira, abestiak diñoanez—, illun ikusten da. Poztuteko ez dan arren, baleiteke laterri guztiko egoerea auxe-bera izatea, baita Europa guztikoa, naizta onelakoe-tan jakitun diranen eritxiz Euskalerrian gertatzen dana zorrotzagoa izan gure berezizko egoera ikusita.

Gurean, Euskalerriko arazoak dirala-ta, ez dot uste aurrerapen aundirik edo larregirik ikusten dala; onetan jakitun dagozanen ustean, beintzat. Orain baietzean eta gero ezetzean dabiltzela dirudi Madrilletik datozen aize boladaei kasu egiten badautsegu. Baiña, Madrilletik diñot? Emengo bertako politikoak, eurak be, ez ete dabiltz era edo modu ber-berean?. Alkarrekin euren artean antzeko modura berba eginda, samurrago, difiot, eritxiak urbiltzen, erdigunea alkartzekotan dagozala uste dozunean, beste edozelako atxakiren bat egaitik edo okerren bat sortzen dala-ta, badoaz arin-arin, leengo edo antxinako lekura (eritxietara) eta, agur... amaitu zan konpoketa ori. Erpeka gero, betiko moduan.

Dana dala, egokitza izan geinke biotzeko baztarren baten gordetzea, apur-apurka gauzak obetuz doazan itxaropena. Beste barik, Urte Barri zorionsua opa dau-tsuegu guztioi, ZER aldizkariaren irakurleai, batez be, eta bizkaieraren aide lanean arduratsu, sendo ekiten deutesnei.

Larrondo

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, **ZER** aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez **ZER** aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ZUBIRI'tar INAKIRI, ADEITASUNEZ, ESKERRAK EMONAZ

Badira pertsona istorikoak. eta beste batzuk Historia egiten dabena. Leenengoak Historia idazten dabenean bihurtzen dabez istorikoak, eurak igotzen dabez maila orretara, sarritan errazten deusiezan meritoak zalantzatan jartzekoak izaten badira ere.

Beste batzuk, ostera Historia egiten dabela bere aide bizia dira bearbada ez dira Espasa, Planeta, Britannica eta antzerako entziklopedietan agertuko, bertan argitaratzen diranetan ere eskeintzekotan iru edo lau lerrotako bizi-kondaira edo biografia eskeiniko jakez, baina ekintzen arrastoa eta oroitzapena gure artean izango da beti.

Ez dakit, ez dagokit niri eta, leenengo artean sartuko zaran, baina ziur nago bigarren artean aurkituko zaitugula Inaki.

Ustegabe pozgarria izan zan niretzat "TXOMIN, urizain baten gora-beerak" liburu artzea udaren asieran, irakurtzeko denporatxo geiago daukadan sasoi orretan zein liburu erosi erabakitzeke zorian nengoala. Ustekabe pozgarria aide batekin liburu bat argitaratzea, berez albiste pozgarria dalako eta ainbat geiago bizkaieraz idatzita badago. Beste aide batetik, eta onetan eskerrak emon bearrean aurkitzen naz, nitaz gogoratu eta "dedikatoria" eta guzti liburua bialdu zeunstalako Inaki jauna. Zeuri deusut zor "dedikatoria" edo eskeintzan dinostazun adeitasuna, eta ez alderantziz. Berori izan da lerrotxo onek idaztera bultzatu nauana. Beraz leenengo eta bein eskerrik asko Zubiri jauna goian aipatutako guztiagaitik.

Liburuaren izenburuari elduta, noizkorako "Inaki Zubiri euskerazain eta euskaltzale baten gora-beerak"? Txominen antzera, zuk ere badaukazula zer kontatu uste dot. Baina aurretik oar bat, ez nago agure zaar baten bizitza zer izan dan kontatzerik eskatzen. Zaztaroa ez da adinaren kontua, adimenarena baino. Egia da adinak gorputza auldu eta makaldu egiten dauala, gizalegea da. Baina ez da beste orrenbeste gertatzen adimenagaz. Orren lekukorik onena unibertsitatean dago, zenbat eta urte geiago esperientzi eta jakituri andiangoa: orrexegaitik bertako irakasleei lana 65 urtegeaz derrigorrez itzi arazi bearrean epea luzatu egin deusez: Zure adimena freskoegi dago oraingino zaartzat artzeko, orren adierazgarri dogularik liburu au.

Baina ondo etorriko litzakigu zuen esperientzia ez daukagunoi zure eta zulako moduko gora-beerak jakitea, bideak eta joandako denporak argitzeko, ainbat "euskaltzain" dabilelako argi dagoena ilundu gurean eta ilun dagoana baltzago jarri naian .

Ooreak banatzerakoan, gauza bitxiak gertatu izan dira euskeraren munduan: Frankok bere sasoi medallak banatzen ebazan erreztasun berberagaz banatu dira. Ez dot esan gura oore guztiak txarto banatuak izan diranik baina ainbat izan dira merezi bakoak. Batzuei gauzarik txikiena eginda ere oorea zor jakela dirudi, eta orretarako zer egin? Egin dabena

gauza txikia anditu. "propaganda" luze-zabala eginaz komunikabide guztietan. Kasu onek geinetan egun bateko lorea izaten dira, eta gero euren bizitza guztia bein baten egindakoaren pentzura emon gura izaten dabe

Bein Jesus Garai zanak futbolari eta gizon andia, partidu bat ikusten gengoala Iribarre itzelezko geldiketa bat egitean zera esan eban: ikusten dozue? itzelezko geldiketa egin dau, baina egin bezain laster baloia bere kide batengana bialdu dauanez gauza an-unta egin dauala emoten dau aalegin barik egin dirudi. Beste bat balitz lurrean iru-lau buelta emongo leukez geldiketaren zailtasuna adierazteko. Ba "euskaltzain" batzuk orixe egiten dabe, lurrean bueltak emon, ortxe dagozala adierazteko, zeozer egin dabela azaldu naian, naiz eta batzuetan zailtasunak ez orrenbestekoak izan, ezta aaleginak ere. Astoak ere kortatik ataraten danean, leenengo egiten dauan gauza orixe izaten da, lurrean itzundu eta bueltak emon nagiak ataratzeko, baina ori ez da lana.

Gainera, gurago izango neuke zuk zeuk kontatzea gora-beerak, zeure ikuspuntutik azalduta, inoren esku itzi ezkerotek daki zer jarriko leukean eta. Adibide ederra eskeintzen deuskue Aita Santi, Aita Lino eta beste batzuek gertatu zanak. Apalegiak ziranez beste batzuk idatzi ebezan euren gora beerak. Batzuk gertakariak eta jazoerak kontatu ebezan eta besteak "historioak". Azkenengo onek omendu, goratu, ooratu egin ebezan, baina.. Tapikoan sartzen diran "baina" guztiak (egiazkoak eta guzurrezkoak) jarriaz. Euskaldunok ikasita euki bearko genduke ikasgaia, gure kondairak beste batzuk idatziak izan dira eta. Baina zelan egon dira idatzita? Oraingino baterean batek (obeto bere izena aipatu ere ez) denpora asko ez dala ao zabal esaten eban euskaldunak ginala Gernika erre ebanak

Zure antzean, liburuak argitaratu dabezanek lana agirian agertzen dozue, baina badira beste batzuk isileko lana egiten dabena, ez diranak argazkietan agertzen, ez diranak egunkarietan barri izaten, baina eurak barik gauza asko izan ere ez litzatekez izango. Ez naz ni inor gizon-emakume orreek aita-tzeko, baina zuk eta zurelakoak orretariko asko eta asko eza-gutu dozuez zuen "gora-beeretan" eta argitara, eguzkitara ataratzera merezi dabela uste dot. Gizon-emakumeok lagunarteko omenaldia baino Gizartearena merezi dabelakoan nago, baina orretarako Gizarteak euren lana ezagutu bear dau, eta ori guztion lana da, baina batez ere zuena

Ainbat izaten dira omenduak, geienak il ondoren. Baina lorak bizi diran artean emon bear jakez, ez ilobia txukuntzeko. Orregaitik ba, artu eizuz lerrotxo onek ondo merezitako lora sorta bat bezela eta ez eizu, mesedez, nire eskaria zuldun sakura bota. Adeitasunez, adeitasun andiz gainera, agur jauna.

ENRIKE ITXASALDE

ITXAS-ALDE TALDEAN EUSKEREAREN ERABILERA NORMALDUTEKO JOKABIDEA

BERBAURREA

Bakioko talderik nagusia izan eta here kiderik geien-geienak euskaldunak izanda, Euskal Kulturearen arloan darabilan talde au barruko artuemonetan, zoritxarrez, erdaldun-erdalduna da.

Taldea jaio zanetik, zer edo agaitik, taldearen barruko artuemonetan euskera indarra eta balioa galduz joan da urterik urtera. Euskal Kultura arloan daragoion edozein taldek euskal izkuntzeari garrantzia eta leentasuna emon bearko leuskioz, dauan elburuagaz aurkesanetan sartu gura izango ez baleu, beintzat.

ITXAS-ALDE "talde euskalduna" izendatu bear dogu. Izendatu eta biurtu.

Alandaze, egoera ori arteztu guran, euskerearen aldeko talde barruko zeozelango plangintza eta jokabidea eregi-teari ekin bear jako. Onek euskerearen erabilera bultzatu bear dau. Egitasmoaren arrakastea elburua erakarrigarri egitean eta bear dan erako metodologia, egokia, erabiltean datza.

Ekintza orrek arlo nagusi bitan eragin bearko leuke, arean da:

- Barruko artuemonetan:
 - Formalak.
 - Informalak.
- Kanpoko artuemonetan:
 - Formalak.


Arlo biotan, baina, bai agozkotasunari, bai idatzizkotasunari jagokenez, atan be.

Egoera dan-dana dala, bada, agozkotasunean ekin eta aalegin andiagoa egin bearko litzake. Barruko agozko artuemonak, formalak eta informalak, euskaldundu bear doguz. Azken orrek dauan garrantzia nabarmendu bearrekoa da. Or dago kakoa eta!

Talde barruan lau artuemon maila legokez. Mailotan taldeko kide guztiak dagoz. Orreri ekiteko, erabilera normalduteko bearra mailaka egiten asi bearko litzake. Maila guztien egoera eta ezak identifikatu ostean, jakina. Ona emen, bada, mailok, artuemon formaletan daben garrantziari jagokonez:

1. mailea (gorengoa): ZUZENDARITZEA.
2. mailea (erabakiorra): ARDURADUNAK-DANTZA IRAKASLEAK.
3. mailea (eraginkorra): DANTZARI NAGUSIAK.
4. mailea (beerengoa): DANTZA IKASLEAK-ENPARAUKO DANTZARIAK.

ARTUEMON FORMALAK



Bai 1. eta bai 2. mailakoak euskaldunbide orretan erabakiorrak dira eta euren sortu leikeen eragin biderkatzaileak on andia egin leikie talde barruko euskereari eta beronen erabilera geitzeari. Orretarako, bai artuemon formaletan, baita informaletan be, euskera uts-utsean egin bearko leukee euren artean zein beerengo mailakoakaz be.

3. mailako dantzari nagusiek eredu izango dira beste guztientzako, baita izkuntza erabilera be. Garrantzi andia dabe, beraz, talde barruko artuemonak euskaldundutera koan. Oneetariko askok talde barruan 2. mailan arduradun lez bear egiten dabe-eta.

Mailotan eragiteko sentsibilizazio eta kontzientziazio bearra egin bear da. Euren ago-miinak eta buru-biotzak euskerearen aide irabazi bear doguz. Taldean euskerearen bultzatzaile eta eragile izan daitezcan. Esan bear da, baina, euskeraz egiteko oiturarik ez daukela, ez etxean, ezta lagunartean be. la danak euskaldunak dira, geienak euskeraz eskolatuak, ganera. Euskerearen aldeko jarrera dabela esaten dabe, baina ori ekintza ez dabe biurtuten. Azkenean, euskeraz egin ezeak erreztasuna galdutea ekarri deutse, euren burua euskeraz ezeroso ikusten dabela, ondorioz, orrek euskeraz egin gura ez izatera daraoaz.

Astekotan ez dago besterik, bada, bultzatzaile eta eragile izan leitekezan orreek euskeraz nongura, noizgura eta beti egiteko konpromezu sendoa onartutea baino. Eta ortik ekintzetara!

ARLO NAGUSIAK ETA IZKUNTZA JOKABIDEA

Arlo nagusiak zeintzuk diran daborduko aitatu doguz. Urrengo onetan, taldean euskerearen erabilera normaldu-

teko egin leitekezan ekintzak zeaztuko doguz, arau erara agertuko badira be.

Euskera erabilera egitasmoak erabilerea bera dau elburu, euskera ikastea erabilerarako tresnea baino ez dana jakinda. Erabilerea geituteko egitasmoa diseinatu bear da. Orretarako, taldean euskereak dauan egoerea sakon aztertu bear da. Bein ori egin ostean, batutako argibideetan oinarrituta, egitasmoa sortu bear da. Egitasmoa ezarterakoan, baina, atarka, mailaka, edota faseka ezarri bearke litzake: elburu zeatzak eta lorgarrietatik asita, gero eta atal geiagotara zabalduz joan. Olan bada, lau fase nabarmenduko litzakez, bakotxari jagokon epea zeaztu bearke litzakela, jakina:

- 1.—Zuzendaritza.
- 2.—Zuzendaritza + arduradunak.
- 3.—Zuzendaritza + arduradun + dantzari nagusiak.
- 4.—Kide guztiak.

Leenengo iru mailek eztabaidagune izan bear dabe. Eta azalduta dagoan antzera, erreskada orretan, eraginkortasunaren arabera, ekin bearke litzakio eginbearrari. Eztabaidaguneotan egitasmoa (elburuak) aurkeztu bearke litzake, Udaleko Euskera Teknikariaren zeregina dala, atan be. Aurrean aitaturako leenengo maila bietan eztabaidatu ta gero, irugarren mailan sortu bear da eztabaidagune nagusia. Ortik urten bearke leukee eta:

- Bein-betiko egitasmoak.
- Borondatean oinarritutako konpromezuak.

Talde osoko kideei eta beronen urko senitartekoei artutako erabagiaren barri emon bearke litzakie. Euki be ITXAS-ALDEk euskera utsean biziteko aurrebaldintza egoki-egokiak daukaz eta.

Taldeko euskerearen erabilera normalkuntzan aurrera egiteko dalako "bateratzaile" (koordinatzaile) orren irudia sortu bearke litzake. Beronen betebearrik nagusia egitasmoa egia bihurtuten lagundutea izango litzake, arean da:

- koordinatza
- ikustaritza
- aolkularitza
- zuzenketak egitea

Euskaldunbidearen jarraipena bear-bearrezkoa da. Erabagetakoa bete dan jakin eta ori beteterakoan sortutako sistorrak eta erreztasunak identifikatu eta aztertu aal izateko.

Barruko artuemonek eguneroko oidalakoak dira. Norbanakoaren borondate on eta gaitasunean datzaz. Barruko artuemonetan euskerearenerabilerea ziurtatuteko, artuemonok giro onean egin bear dira. Euskerearen aldeko giro ona sortuko balitz talde barruan, ondorio onak lortuteko baldintza baikorretan egongo gintzakez. Artuemon informalok araututea ia ezina danez, beraz, areek euskerearen

ren aide irabazteko, euskerearen aldeko inguru eta giroak sortutea da giltza.

Alandaze, urrengoan agertuko dogun talde barruko araudi antzerakoa kanpoko zein barruko artuemon formaletarako mamurtuta dago eta berorren elburua euskerearen erabilpena bermatutea da, erabilerea indartuteko lagun eta argigarri dan ginoan.

EUSKERA **ERABILTEKO** ARARUAK

OROKORREKOAK:

- 1.—Euskera Euskalerriko nazino izkuntzea eta Bakio Euskalerriko zati euskalduna izanik, ITXAS-ALDEk "euskera" berezko izkuntzat artuko dau.
- 2.—ITXAS-ALDE Bakioko taldea dalako eta Bakio Bizkaiko erria izanik, areri jagokon euskera moetea bizkaiera (sartaldeko euskera) dalako, ITXAS-ALDEk idatzizko argitalpen eta agozko aurkezpen guzti-guztietan "BIZKAIERA LITERARIOA" (1) deritxon euskera eredu ontzat artu eta erabiliko dau. ITXAS-ALDE eta Bakioko Erriari jagokozan Bizkaiko euskal nortasun berezia eta Bakioko berezko ondare etnolinguistikoa (2) jagon guran, atan be.

- (1) OARRA: "BIZKAIERA LITERARIOA". Tradizino idatziaren eredu onarriturik, EAeko jaurlaritzak argitaratutako eta Euskaltzaindiak onartutako "BIZKAIEREAREN IDATZ ARAUAK ETA JOSKERA" deritxen araudiak osoturik, euskal izkuntza eredu da.
- (2) OARRA: Taldeak erabiliko dauan "BIZKAIERA LITERARIOA" dalako orretan Bakioko ondare etnolinguistikoa leentasunezko lekuri nagusia izango dau, Bakioko berezko euskal nortasunaren ezaugarri berori jagon guran.

BARRUKO ARTUEMON FORMALAK:

- 1.—ITXAS-ALDE taldeko kide guztiek euskeraz egiteko eta barruko artuemonak euskeraz biziteko eskubide osoa dauke, talde barruko bizitza euskeraz egin aal izateko.
- 2.—Bai zuzendaritza, bai arduradunen aldetik, talde barruko artuemon formal guztiak euskera uts-utsean egingo dira: dirala batzarrak, dirala txostenak, dirala entsaioak, dirala oarrak, dirala mezuak, dirala aginduak..., agoz zein idatziz.
- 3.—Enparauko kideen aldetik, bai euren artean, bai zuzendari eta arduradun diranakazko artuemon formal guztietan euskera uts-utsean egingo dabe dirala batzarrak, dira-

EKINTZAK

la txostenak, dirala entsaioak, dirala oarrak, dirala mezuak, dirala aginduak..., agoz zein idatziz.

4.- Euskerearen erabilerea taldean normalduteko egokitu eta onartutako araudiaren bete-neurriari jarraipena egiteko eta jagokozan neurri artezleak indarrean jarteko jarraipen batzordea sortuko da. Batzorde orretan bateratzailea (koordinatzailea) izendatuko da.

5.- Euskerearen erabilerea ziurtatuteko, dantzarien arduradungaiak aukeratutakoan euskaldunen artean aukeratu dira. Aal bada, euskera mailarik onena dabenen artean.

6.- Taldean euskerearen erabilerea normalduteko onartuko diran neurri, araudi edo ta abarren barri bai kide guztiei, bai kideen urko senitartekoei emongo jake, aalegin onetan geugaz bat egin daiela eskatuz.

KANPOKO ARTUEMON FORMALAK:

- 1.- Taldearen adierazle eta ezaugarri publikoak euskera utsean egingo dira (izena, kide txartela, zigilua,...).
- 2.- Argitaratuko diran eskutitz, txartel, oar, iragarki, egitarau, egutegi, idazki eta idatzizko argitalpen guztietan, bai barrurako, bai kanporako, euskera utsean egingo dira. Inoiz elebitan egingo balitzaz, EUSKEREAK leentasuna izango leuke beti. Onek esan gura dau: idatziz aditzera emongo dan guztia euskeraz bakarrik edota euskeraz nagusiro egingo dala beti.
- 3.- Aurrean adierazota bete aal izateko, sortuko diran aitaturako ekoizpen guztiak euskeraz sortuko dira, eta euskeratik erderarako itzulpena egingo da eta ez iruntzietara.
- 4.- Agozko aurkezpen guztietan adierazoko dan guztia euskeraz, gitxienez eta nagusiro, egingo da beti. Entzulego euskaldunari zuzendutako emonkizunetan euskera uts-utsean egingo da. Bestelango entzulegoari zuzendutakoan euskereari leentasuna emongo jakon jardunbidea erabiliko da.
- 5.- Taldetik kanpo nonora ordezkariitza bialdu bear izango bada, ordezkariok euskaldunak izango dira. Eta Euskalerriko euren agerpenetan euskereak leentasuna izango dau.
- 6.- Bizkaiko eta Euskalerriko erakunde publiko guztiei inoiz eurengandik artutako idazkiei erantzuna emoterakoan, euskera uts-utsean egingo da. Alan be, erakunde orreei edozein idatzizko edo agozko adierazpen egiterakoan.

7.- Bizkaiko eta Euskalerriko talde edo erakunde pribatu guztiei inoiz eurengandik artutako idazkiei erantzuna emoterakoan, euskereak leentasuna izango dau. Alan be, erakunde orreei edozein idatzizko edo agozko adierazpen egiterakoan.

8.- Bakioko, Bizkaiko eta Euskalerriko erakunde, alkarte edo talde publiko nai pribatuagazko artuemonak euskera utsean izan daitezcan gura dogula adierazo bear jake (itsaskinak, ezaugarriak, idazkiak ...), artzaileak orren barri izan daian.

9.- Bakioko beste erakunde, alkarte eta taldeakazko artuemonak euskera utsean egiteko konpromezua artuko da, itzarmen baten/batzuen bidez. Itzarmen orren/orreen izenpetzaileen arteko artuemonak, idatziz zein agoz, beti euskeraz izango dirala adierazoz.

10.- Bakioko, Bizkaia eta Euskalerriko mailan be, euskerearen aide egingo diran agerraldien edo ekintzen aide agertuko dau bere burua ITXAS-ALDEK.

11.- Bakioko kultura eta kirol alkarte edo talde, edota Udalagaz, euskerearen aide bat egingo dau ITXAS-ALDEK.

12.- Euskera erabilerearen ganean artutako erabagien barri emongo jake Bakioko Udal, kultura, kirol eta erritar guztiei, olango antzerako erabagiak artu daiezala dei eginaz batera.

ELEBITASUNA

Euskalerriko entzulego edo irakurle goa euskalduna izango ez danetan elebitasunez egingo jake. Ez edozelango elebitasunez baina, euskereari agoz zein idatziz, edukinez zein kopuruz eta kokapenez, leentasuna emongo deutsonaz baino.

Iniaki MARTIARTU
1997ko zemendian

IRAKURLEARENTZAKO OARRA: Baleiteke irakurleak ITXAS-ALDE taldea zer dan ez jakitea. Bada, ITXAS-ALDE izeneko taldea Bakioko Dantzari Taldea dogu, Bakioko Euskal Kultura Taldea. Orain dala 25 urte jaio zan. Idazle au taldean ainbat urte emondakoa da eta zeozelan gaur eguneko talde barruko euskera egoera makalak eraginda eta arduratuta daukaz beraren buru-biotzak. Ez dau idazle onek. baina, egoera txar orretara eldu izanagaitik euki leiken erantzukizunik ukatu gura.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKEREAREN JAKITE-MAILEA ITXAS-ALDE TALDEAN

ITXAS-ALDE, 1997ko zinemendian

TALDEA (MAILA)	ADIN TARTEA	G/A	ZENBAT OSOTARA	EUS. AKTOBOAK ALF. EZ ALF.	AUS. PASIBOAK U+B U	ERDALDUNAK	ARDURADUNA GA	OHARRAK
Nagusiak	17 - 27	G	12	9	2	1	Xabier ALE	Ramón-ER.
Nagusiak	19 - 26	A	12	9	1	2	Birji ALF.	
Erdikoak	13 - 21	G	13	9	3	1	Jon ALF.	
Erdikoak I	17 - 21	A	17	17			AintzaneALF.	
Erdikoak II	14 - 18	A	15	15			ElisabeteALF.	
Txikiak I	10 - 13	G	7	6	1	1	Anartz ALE	Iñiaki-ALF.
Txikiak I	10 - 12	A	13	13	1	1	Leire ALF.	
Txikiak I	6- 8	G	9	9	1	1	Unai ALE	
Txikiak I	6= 10	A	7	7	1	1	Eider ALF.	
Txikerrenak	3 - 6	^{A,11} G-3	14	14	1	1	Izaskun ALF.	Birji-ALF.
Musikariak	18 - 32	G	2	2	1	1	Xabier ALF.	Dantzari diran musikariak be badagoz: 5
Zuzendaritza	36 - 39	A1	2	2	1	1		
Laguntzaileak	23 - 56	G	3	2	1	1		Iniaki/Ramón/ Aritza
Guztira		⁵⁰ A-76	126	100	14	7	1	4

ALF.: alfabetatua, ezALF.: alfabetatubakoa, **U+B:** ulertu ondo ta berba gitxi, **U:** ulertu gitxi, **GA:** gaitasuna, **A:** andrazkoa, **G:** gizonzkoa **ER.:** erdalduna

AURRE-APRAIZ OLERKARIA (1997-12-02)

Eskuetara yat Aurre-Apraiz'tar Balendin olerkariaren "Egunen Bidean" izeneko olerki-liburu bikaiña. 1994 urtean Karmel Sorta'k argitaratutakoa. Olerkien edertasunak eraginda, nire eritxia emoteari ezin naitekio jarki. Ene ustez, Balendin onenatariko euskal olerkari dogu. Gaur, zoritxarrez, bere olerkaritzak ez dau beste olerki-gintzak jasoten daben intzentsu aiñakoa, eta urre-antzekoa (oropel) dana, benetako urreztat aurkezten dauskue, egizko ertia txokoratuz.

Arrigarria da benetan, ozta-ozta mutiko-ikasketak erriko eskolan artu dituanak, zelako anditasun eta barru-miña erakusten dauz olerkaritzan murgiltzen danean. Orretarako, olerkari jaio bear da, eta ezpaibarik, Axangiz'ko seme au olerti-ixuriaz munduratu zan, ezerk ezin erosi dagiken bitxia, arimaren doai bat dalako. Landu daiteken aberastasuna da, eta oler-miñak eraginda, gure olerakariak beste iturrietan landu eban bere edertasun-egarria, Lauaxeta'gan esaterako. Onen "Bide Barrijak" irakurtean, badirudi alako zirrara batek bere sentimena astindu eutsala, eta barruan eban gora-jorana/ piztu yakon irazeki edo su erraldoia biurtu arte.

Lauaxeta'k, argiz eta edertasunez beteriko mundu ezauge bat edegi eutsan. Aune-Apraiz'ek ederrespen andia eutsan Laukiniz'ko olerkariari, baiña maisutzat artu arren be, onek ez dau esan gura, Balendiñ'en olerkigintza bestearen itxurakoa edo aren aldaki bat dala. Ez urrik emon be...! Aurre-Apraiz'en eder-sena berea da, barrutik, sortutakoa, irarmen bereizikoa, arimaren abesti isilleziña bai'litzan.

Bere barru osoa olerki-miñak piztuta, baserriko zeregi-ia emoten dautse, eta zabaldiko edertasunak eraginda, "zeri nakio"ko geldiuñetan, olerki-grinak menperatuta paperera aldatzen ditu barrutik yabilkozan amesak. Izan be, baserriko bizi-bideak benetan lagundu eutsan goren mailla orretara igoteko.

Balendin, baserriar olerkaria da, eta zabaldiko izatasun garbiak etenbarik edertzen dautsoz bere baitan bizirik dirauen izate olerkoiaren txingarrak, ameslari bateri dagokiozan jeiuñaren emoitzak biurtuz.

Aurre-Apraiz'tar Balendin 1.912'an urteko Azilla'ren 3'an Axangiz'en jaio zan, baserriar sendi batekoa, amar anai-arrebetatik azken semea. Aita, Erruperto Aurre, Muxika'ko seme, eta ama Juliana, Apraiz Mendatakoa.

Erritarren arteko 1936'ko gudea asi zanean, abertzale-tasunak eraginda, "Itsasalde" gudataldean aberriaren aide burrukan egin eban. Noizbait, Artxandan iztarretik oiñetara zauritu izan zan, eta Basurto'ko geisotegian egoala, etsaiak atxillo egin eban. Batetik bestera erabilli eban gurutz-bide larria ezaguturik, lau illabetez oetik jagi barik, eta urtebete batez erren, makuluakaz ibilli bear ebala.

Espetxe-zigorra emon eutsoen, eta azkenez Larrinaga'-

ra sartu eban, eta emen egoala, aita il egin yakon. Izugarri asko ezagutu eban izu-leku aretan, eriotzera galdutakoen azken latz-ikaren artean bizi izandako gau luze areitan, Derio'ko ormaren aurrean iskillotuak izan aurretik. Eriotzarekin izandako ukitze onek, bere gogoan aztarna aztueziñak irarri ebazan, bere olerkitan agiri diranez.

Iru urte iraun eban bere espetxaldiak, eta 1940 urtean etxera biurtzean, bere barrua olerkaritzaz asazkatu eban. Aspaldi onetan, J. Zaitegi'k zuzendutako "Eusko Gogoa"n lankide izan zan, baita "Karmel"en, "Egan"en, eta "Aran-zazu" aldizkarietan be.

1958 urtean, lagun baten bidez Venezuela'ra doa, eta emen sei urte emon ostean, aberri-miñak jota, etxera biurtzen da, eta euren olerkigintzari jarraitzen dautso. Ona emen, gaur arte egindako lanak:

1958 urtean "Gogo Zelaietan" olerki-bilduma.

1958-64, "Errimiña" bildurna.

1964-93, "Menperatuen Didarra" bilduma.

Baditu beste lanak, (Lauaxeta'ren sei aldi — Laien atdetik tratoren aldira — Txori Galduak, R. Tagore'ren itzulpena).

Nik, Aurre-Apraiz'en olerkigintza lau taldetan sailkatzeten dot:

Jainkotiarrek
Izadizaleak
Maitaleak
Abertzaleak

Olerkari baten zelakotasuna ezagutzeko, bere olerkien erakuski bat emotea onena da. Oztopo bat aurkezten yat baiña: bere olerkiak 200 etik gora izanik guztientzako ez dot aukerarik. Orregaitik, ederrenak deritxadanetik zati batzuk artu dodaz, lenengoak eta azkenak geienbat, ordubete bateko itzaldiak geiagorako ez daust emoten-eta.

Asi naiten ba, JAINKOTIARRAK taldekotik

TOW AMATXU

Olerkariak meridian loratxu bat artu dau, eta garbitasun-ikurtzat malko batzukaz batera Andra Mari'ri eskin-tzen dautso.

Loratxu bat eta malko bi
beste emokairik ez daukat eta
artu, Ama, vire opari.

Maiatzeko arrats-beera
Zeuk baiño atera ezin zeinkedan
Arantza zorrotz bat daukat barruan.

Loratu bat eta malko bi
maitasuna ta damua — emen
neure biotzaren iturri.
Ton...!

BARRU-ERESIA

Olerkariak isillaren zear otsak dantsuz, baiña orori
itaundu arren, ezkutuaren indarrak igarten ditu

Ixillaren barrendik
yatordazan otsak
urrun gardenetarantz naroe
pentsamentuen bultzadaz.

Ase eziñezko egarri yabilt,
gau ta egun gogoan;
ez daurkit, baiña, asegarririk
ez nire itaunen erantzupenik.

.....
.....

Eresi ezaungeak oska yabiltaz, be,
gizonen txatxartasuna azaltzen
eta, egillearen aunditasuna adirazten.

IXILDU DIRA KANPAIAK

Joale-otsak entzutean gogo-barrenenetik didar bat igesi
yoako, galdutako adiskide andi bategaitik.

Ixildu dira kanpaiak!
Goibel dagoz goizak.
Ixildu dira kanpaiak
(kaden ingurua)
Ixildu da ixiltasunaren
ixil erestua

.....
.....

Aita, anaia ta lagun
nitzat izan zara.
Arimak on-bideratzen
beti biotz-bera.
Otoitza-lokarriz il-arte
bat izango gara.

Ixildu dira kanpaiak!
Goibel dagoz goizak.
Ixildu dira kanpaiak
(izoztu da poza):
urrundu da maite genduan
goi-indardun abotsa!

Orain IZADIZALE'ko eredu batzuk jarriko dodaz.

AUTORKIZUNA

Olerki onetan, bere izadiganako maitasun bizia bultz
jarki-eziñaz isurtzen da

Ikusiko ez ba' nitu

Bedats gardenen pozkidan:
Baso eta mendiak lotatik jagiten,
tontor eta zelaiak berein margoz jazten,
txorien kanta alaiak goiz barria agurtzen,
bedar ganetan intza giroa disdisten,
sorgindera zoroak zidorrak alaitzen,
kanpai-otsen kadena oianetan galtzen,
eta biotz-taupadak maitasun garbizko:
eneuke bizi gurako!

.....
.....

Ikusi ez ba' nitu

negu otzen goibelean:
Lerdietan ostentzen egun otz laburrak,
tamal-tamal arruak, laiñotsu mendiak,
basoak lo-zorroan, billoizik zugatzak,
ortzi-zear arinka edoirik baltzenak,
ostots, tximista, euri, txingor ta bisutsak,
leioan zaldizkoen txilibitu-otsak,
edurrez apainduta mendi ta zelaiak
ta gogo baketsuaz biotza pozkiro:
eneuke bizi gurako!

Izadi-edertasun ta jun-etorriok,
zeruen oiartzuna, gogoen gelgarri;
Ta Egille-Gurena maite ez ba'neu zintzo:
eneuke bizi gurako!

ARREZKERO

Ustekabez loretxu bat zapaltzen dau olerkariak, eta iza-
diaren samiña oartzean, arrezkero maite-maite dau izadia

Loretxu bat zapaldu neban
atsalde baten altzoan,
ardura bage aide nintzan
samiña bapez aldean.

Joan da joan, gan batetik
inguruk so nebazan;
lane saminduen negarrak
goibeltsu jan-i nenduan.

.....
.....

Maitei dodaz baso ta
loratxuak arrezkero:
eresi kadenez gozatzen
nabe illuntzetan, emaro.

EKAITZAREN OPAGAI

Gogoan ditu ostendu ziran euskotar anaiak.

Negu-txoriak badatoz
sarkaldetik erostari.
Euzki izpirik ezta agiri:
aize zaratatsua otz.

EUSKAL-ASTEAK

Illun dago itxasaldea;
edoian aserrezko ostots,
oiñaztu gorriak zorrotz
atsalde erdin illuntzea

.....
.....

Negu-txorien antzera,
herein euzkotar alderrai,
sortalde argiaren zain,
erria ames ta minbera.

Ekaitz ankerrak jaurtirik
urrundu anai maitteok!
Zeuentzako nire gogok
agur itxaropentsurik

NEGU-AZKENEAN

Badoa negu gorri ta ituna goibeltasunez jantzita, urre-
ratzen dan udabarriari bide emonez.

Lurmentzen doa edurra,
ta badaroaz egoiak,
negu-ateak itxiez,
ametsen luma zuriak.

Erantzi dabe basoak
orban bagako longaiña;
edoi-ertzak argitu dau
negu-bekokigordiña

.....
.....

Edurren zuri-garbi
ta bedatsaren poztasun
gomuta iraunkor bekidaz,
elbururantz bide-lagun.

Orain, maitale arloko olerkiai emoioGUN bidea.

NEURE MAITEARI

Maitasunaren-maitasunez olerkaritzak menperatuta,
deika dabilkio ames egindako maite-kutunari, baretu dagi-
tsan oartzen dauan maite-miña

Umearotik aukanat maite
neure amesen ixil-barruan.
Zein mendartetan bizi azana?
Ezautu-miñez lilluraz naukan.

Illuntz oro abilkiñat ur,
eresi leunen egaztadetan.
Ixillez naasi oi az belaxe,
eure laztan-zain nagonetan

.....
.....

Mendi-arteko maitale garbil
Euarren, kutun, non olerkari
Ire kintuen eres kadenak,
goi-urriñezko ames-dirdari.

Eldu nire uts au betetan sarri,
laztan gardenez arrats-beretan.
Nuntar aunadan esaidan, baiña:
eugaz nai yonat, basoen gentzan

SAMIÑA

Negar egiten dau olerkariak, ezbear baten ildako neska-
to bat oroitzean.

Nekanetxu gaixoa!
Larraspastada baten
galdu zenduan bizia.
Begira nendukazun,
illuntze goibel baten
bizkargan saminduan...
Oi Nekanetxu gaixoa!
Anker eta gaiztoa
izan yatzun mundua

.....
.....

Nekanetxu gaixoa!
Mingots geratu yatan,
zauri gordin gogoa.

ETSIPENA

Maitasunari kantau neutsan
neure kantarik samurrena;
basoen askatasunean
garandu ziran nire eresia
leunaren txatalak, minbera.

Zauri gordin baten barruan
ixildu zan nire pozkida,
osertzik bako goibeletaz,
egoak moztuta, itxaroa
galtzen ikus neban artean

.....
.....

Geroz, ixil jasankeiaren
ikutuak ots minberarik
atera daroatso, tamal
aztuen gentzan, nire barru
otzaren aro ausiari.

JOAN ZAN

Deika dabilkio, bere pozkidea zan maitetxua ostendu
dalako. Izadi osoa, mendiak, latsak, zugaitzak, negar baten
dagoz, eta olerkariak arrenka dabilkio barriri agertu daiten.

Neure neskatxa dotorea!
illunpean aantzi azana.
basoen pozkida intzana leen;
orain zer don orren ixilpen?

Asperenka yagozan landak;
negar ezea zugatzetan.
Latsaren erostak itaunka:
non gal zan, baiña gure neska?

Minbera naukan goiz eta arrats,
elorrizko negarra aldean.
illunize goibelen zauria,
ire gomutaren gezia.

Loraz apain dozan zidorrak
bedatsaren landa aratzetan.
Lengo basora ageri adin
zeure amesa gal ez dedin.

TXATXANDUAREN **AZKENA**

Bolu-neskeagaz maiteminduriko mutilla, aren billa dabil, eta zentzuna galduta uretan zear aren bilta doa erio-tza aurkitu arte.

– Zeri negarrez ago, mutil
bitxidior-ertzean billoizik?
Euzkia ezkutau dok, eta
landetan etxagok lorarik...

– Bolu-neskeagaz maitemin,
aren billa nabil jai ta aste.
Latsa ni baiño maiteago:
urak eroan ebala uste...

Ez adi jun, mutil ibaira;
lamiña zitalak zaindari,
arrats-aizetan maite-egarriz,
igelen kantetan dantzari.
.....
.....

Sartu zanean ur-azpira,
iiien otsa erreka-munen.
Lamiñak bizkor, eder-miñez:
gazte txatxana ez agertzen.

Kaden egozan inguruak,
ixil etorran illargia.
Bolu-neskaren maitalea
Uretan gal eban bizia.

Ekin dagiodan orain ABERTZALEAK taldekoari. Aberriari maitasun bizia dautso Aurre-Apraiž'ek, muiñetaraiño sartutakoa izan be, eta bere barrua gar kiskalgarria biurturik, arima osoa isurtzen yako uin erraldoiaren antzera, bere olerkirik bikaiñenak, jorienak, sorturik. Aberriaren aide burrukan egin izateak eta gero espetxeratuen adur zoribakoak, ikuspegi bereizia damotsoe bere sentipenak edonork baiño obeto adierazoteko. Ikusi dagiguzan eredu batzuk:

GERTURIK

Kanpantzar guda-oiñetan dago gau baten, eta aberria galtzorian ikustean, didar onexek iges egiten dautso:

Negua...

Geisokiaren eriotza.
Mendigoizale lerdanak
garretan dauko biotza.

Illargi pean urduri
Au da gabaren ederra!
– Berein izar dizdilari –
Euzko gudari azkarra
lo dago, baiña lo-zurrik

Ire tartean lo-zurrik...
Au da aizearen otza!
– "Berein berunbil aizean txistuka" –
Guda-santzoa dator onantza...
Itzartu tinko; Aberria dogu deika.

Mendi ezean zutunik
herein gazteren kemena
– "Eztira igaroko emendik" –
Amatxu, legortu malkook, ez estutu,
gerturik daukagu zeuretzat odola.

GAURIK GOGORRENA

Artxanda'n dago Bilbao aurreko gudalekuan, eta gabean gertatzen dan burrukeagaitik bere gudataldeak izandako ezbearrak edesten ditu, baita bera zaurituta izan zanean.

Aberri-miña gogoan.
Askatasun bidearen latza
Bagilleko gau eroan
Artxanda mendi guztia sutan.

Ernai tontor-totorrean
"Itsasalde"ko gudari-sailla.
Bilbo illuntan bekaldean
itzarrik: gudearen samiña!

Euzko gudari-oldarra
opagai aberri-altarean.
Aurrean ur-ur etsaiak
iskil-ganezka, amurru betean

.....

Oin-oiñetan estanda bat
Lau mutil zauri gordin, giñartzan.
Goragoraka iskilluak,
yagiteko indarge, ni odoltzan.

.....

.....

Aberri-miña gogoan.
Askatasun-bideak odoltza
(Oin-belaunak sendotu ziran.
zauri gordin, oindiño biotza...)

EUSKAL-ASTEA

DEADARRA

Aberriaren galtzoria ikustean, deadar bizi bat urteten yako barrendik, eusko gaztediari burrukarako eragiñez.

Itzarri adi gazte, lo orretatik, itzarri!
Ez dantzuk mendiotan erostarik, lan-i?
Askatasun galdua dok eu-billa aldarri.
Geure-geureak dozak emengo oian, mendi...
Artu iskillua eta geugaz etor adi:
Arrotza yaukagu geu ondau guraz gaindi.

.....
.....

Itzarri adi gazte, ez adi egon loti.
Kateak eten daiguzan, eta arrotzak jaurti.
Bizitza-oiñarria askatasuna beti.

TAMALA

Atzerrian dago, eta aberri-miñak oiur larri bat jaurtiteko bultzaten dau. Ai, biotzari jaramon egin ba'leutso...!

Ai, biotza!
Ene, biotza!
Euri etxaramon
egiteagaitik
atzerrian natza.
Biotz-barnaren tamalak
buruaren esanera
opaldu nitun:
arrezkero itun.

.....
.....

Men egin neutsan barnari,
biotza ixildu gurarik:
alperrik, baiña
guzurtau barna.

Ai, biotza!
Ene, biotza!
Euri etxaramon
egiteagaitik
atzerrian natza!

ERRIMIÑA

Ona euren, aberritiko urruntasunak jaurti-erazoten dau-tsot beste oiur larri au.

Dei ta dei daukat aberria
dei sarkorrez, egun eta gau,
Ezin daiket atsekabe au
jasan: neke yat atzerria.

Geureekandik asan ta goibel
luzaroan ezin naiteke.
Gomutapen garbiak naukee
galdu-pozkidan gogo-motel.

.....
.....

Geure gurasoak datzazan
lurraren bake orlegia!
Zugandik landa, atsekabia
ugari, toki guztietan.

BA-NOA

Ain biziro ames egiñiko aberrira biurtzeko ordua eldu yako, eta pozaren-pozez biotza ikotika asten yako.

Ba-noa.
Au poza!
Abeslari daukat biotza.

Agur, atzerri legorra,
atsekabeen zelai ankerra.

.....
.....

Ba-noa.
Au poza!
Agur, betiko, atzerri itsa.
Baitegitik urtetako neban
baizen aundia da vire poza.
Laster ibituko ni errimin
eta igesi biotzeko samin.

GAU ITZELA

Espetxean atxillo dagozen eriotz-epaituen izua margozten dau olerkariak, gabeko isil izugarrian arein billa datozenean.

Gabeko ordu biak!
Gau illuna...!
izarrik ez dago ortzian.
Ixillik dago mundua.

Gabeko ordu biak!
Lo, nasai, ardurabakoak.
Erloxuaren tik-tak mintzobakarra,
ormatik dingilizka,
baituen gogoak astintzen
Itxaropen ausien gaba
Giltz-otsak baitegian
il-gaien billa urduri.

.....
.....

Odolezko goizalde!
Neke, samin, atsekabe ta
larritasunez, goizalde urratua!
Narriotu dabe illen bakea
edendun zizpa luzeak,
eta odol-ustu dira
aberriarri eskiñitako
bost gazteren bizi gordiñak.

Egun-senti larria!
Odolez gorri
agiri dira zelaiak
neguko aro izoztuan.
Illun dago sorkaldearen bekokia;
oinaztu ta ostotsez agertu da
zeruaren acarrea,
eta urduri ezkutau dira
erailleen esku odolduak

ISKILLUTUAREN GUTUNA

Emen doatzue, nik aukeraturiko Balendiñ'en azken olerkia. Eriotzera galdutako abertzale bat bere azkenaren begira dago. Etxekoak gogoan ditu, eta danek utzita, paper-txatal baten, barruan yabilkon onena bialdu gura dautse. Olerki zirrargarria benetan. Entzun egizue:

Baitegiko onnatzar illunai
izerdi otza erioen.
Neguko egun izoztuak
erukirik ba-pere ez eben.

Illerriko ormak baizen ixil
egoan baitegiko illuna;
zaintzailleen gorrotoa urduri
gau baltzean ara ta ona.

.....
.....

Ziegan itzelean bakarrik,
aul, gizona, katez zamauta,
eriotza noz etorko,
kupidak bertan-bera itxita
.....
.....

"Ze uts-egite egin dot, nik baiña",
iñoan, tamal, berekautan
"Erriaren aide jokatu?
Ez dot ingerarik, arean"
.....
.....

Paper-kondo bat eta arkatza...
"Malkoak eta maitasuna..."
– Asko esan nai, baiña ezin –.
"...Auxe da dodan ondasuna".

"Agur, neure emazte on ta ume
laztanok, beste alderarte.
Ixuri dagikedan odola
guztion onerako beite"

Eta suiskilluen daunbadak
egutza urratu ebenean,
gutuna eskuan ebala
errubakoa, aratin zetzan.

Iltzailleetako batek zorrotz,
gutuna eskuetatik ken.
Baiña aizeak erauzi eutsan:
ezin jakin nora zateken.

Maitasuna ta odola,
gorrolo ta erailketea.
Osertzetik itun etorran
bestaldeko otsen aserrea.

Eta amaitzeko ordua eldu yat. Urdubete bat gitxi da, Aurre-Apraiiz olerkari bikaiñaren anditasuna azaltzeko; bere nortasunaren neurri zeatz emoteko, ordu asko bear izango litzakezalako. Eta amaitzeko auxe esan gura dot: olerkari onen izena, urrezko itzakaz ipiñi bear izango gendukela gure parnasoko zeruan, andienetariko bat dogulako.

AURRE APRAIZ

Elertizale agurgarria
dago Gernika aldean
izkuntzeari edertasuna
emon nairik basetxean;
eguzki aide Gernikara adi
dagon baserri maitean
argitasunak bultzatzen dautsoz
buru-biotzak aidean.

Euskalerriko toki kutuna
Lege Zarren sortzaillia
Apraiz gizona arduraz dabil
zaindu nairik izkuntzia;
lora ederrez aberastu dau
arbasoen itz maitia
kantu ta kanta zelai artean
jabilko gogo bizia.

Eder zalia berez da Aurre
bitxi guztien artian,
baiña izkuntza jorratu eban
lora danen izenian;
euskal jendeak izan egian
gidari on bat aurrian
euzko bizitza sendotuteko
bere nortasun guztian.

PAULIN

t

JESUS OLEAGA JOAN YAKU

Gaur, 1998'ko urterillaren 7'an, jakin dogu atzo Jesus Oleaga il zala.

Beste lagun batzuren artean, eragile nagusia bera izan zala, sortu zan "EUSKERAZALEAK" gure erakundea. Bere eriotzeak inoiz ez besteko samintasunez bete gaitu.

1967n. urtea izan zan, berak, lagun-eskutada betekin, euskerarekiko maitasunez, aldi zail areitan, gure izkuntzari zetzan lo-zorroan, aurrean egozan oztopoai jaramonik egin barik, laguntza emotea erabagi ebanean.

Illabeteak igaro ziran talde orren asmoak egi biurtu baiño len. Jo ona, joan ara, beste aren burutara sartu euskereak eskubidea ba- ebalu edozein izkuntza lez irauteko aldarrikatuz, noizbait euskal-erakunde bateri legezko bizierea emotea jaritsi eban.

Meritu guztia Jesus Oleaga'ri zor jakola esan geinke, aldi aretan eziña zirudiana bere adoreari esker lortu zalako.

Legegizon zuzen eta jakintsu onek euskerea muiñetaraiño sartuta eukan eta berau izan zan "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"ren lenengo lendakaria eta amar urtez bere alegeñak eta maitasuna esku zabalez emon eutsazan erakunde oneri.

Erakunde onen egitekorik beiñena euskerea ikastea eta erabiltea izan zan eta oraindiño be izaten jarraitzen dau.

Esan daikegu 8.000'ko ikasle-kopurua izan dauala beronen bizitzaldian.

Onezaz gaiñera gure Erakunde onek "ZER" illerokoa argitaratu dau urteetan zear etenik barik.

Txikitandik euskaldun jatorra izan da Oleaga Jauna. Bere aita Nazario, Euskaltzaindi-koa izan zan.

Euskaltzale sutsu baizen legegizon arteza izan da gure Jesus, euntzute andikoa ta ede-rretsia.

"EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ALKARTE"ko bazkidea be izan da eta bera da baita Zeanuri ko Zulaibar Lan-Ikastegiaren sortzailleetariko bat be.

Euzkadi'rentzat benetan ongillea izan da eta adiskide askoduna, etsaibakoa.

Bere adiskidetasuna dedu aunditzat izan dodala esan daiket.

Ba-dira inoz il bear ez leukeen gizonak. Orreitariko bat litzake Jesus Oleaga. Bere irri- barre gozoagaz eta beti laguntza emoteko gerturik ikusten dodala deritxat

Egun goibel onetan otoitz bat eskatzen dautset geu bazkide guztiai bere aide, eta egun audira arte.

ZUBIRI'TAR IÑAKI
EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN LENDAKARIAK

ARGIUNEAK

LITURJI BERRIAK



- Remijio Mendiburu il zan orain zazpi urte.
- Bai. Aren erruatsak kutxatxo hatean eduki zituzten, Euskadi

- loagatarren Jauregian.
- Eta ara joan ziran agur egitera begirune aundienagaz.
- Gero, berriz, Jaizkibel mendira eramán ebezen, lau aizeetara zabaltzeko.
- An zegoen emaztsa apaiz-lanak egiteko.
- Aurretik Mikel Laboa'k kantu zaarrak eta Arze anaiak, txala-

parta.

- Eta, giro orretan, erruatsak aizeetara, Jaizkibel gainean iaun dezaten zaindari...

DINOSAURIOEN AIZKENA

- Eboluzioa txikitik aundira, ala alderantziz izan da?
- Emen agertzen da, aundienak izan zirala aurretik: onelako mamu zatarrak, dinosaurioak, 70 milloi dira Lur-gaiñetik galdu zirala.
- Eta, nola galdu ziran orren besteko, pisti aundiak?
- Teori asko sortu dira, ori agertzeko; baña, itsurarik onena duena, Asteroidesena dirudi.
- Eta, zer da Asteroides ori?
- Izar zati bat; orrelako asko dabil libre eta aske Izadiaren ganbaran. Orretariko batek jo zuan Lurrean eta ikaragarritzko autsak sortu eta autsak galazi egiten eutsón argiari eta Lurra illunpe baten menpean sartu zan luzaroko.
- Illunpeetan perretxikoak bakarrik dute bizia.
- Baña, autsetan perretxikorik ere ez ezer, ez. Ezetasuna palta.
- Eta, argirik gabe, izaki bizirik, ez; eta, izaki biziak illtzean Dinosaurioek gelditu ziran jakirik gabe, aide batetik; anasarik gabe, bestetik.

- Puntu-puntu jo dezu. Orrelan gertatu zala dirudi.
- Baña, izar zati orrek zuloren bat egingo zuan Lurrean? Bai al dago zulo orren aztarnik iñun?



- Islandia aldean erori ote zan eta golpe arrekin, Islandia bera sortera zi. Zulo arren arrastoetan Iridio metala agertzen emon da.
- Islandia'n bakarrik?
- Ez Baita Noruegan, Italia'n eta Zelanda Berria'n ere. Gutxién Zelenda'n; ondoren Italia'n; bi oietan baño geiago, Islandia'tik gertuen dagoen Noruega n.
- Eta, zulo oien ertzak nun dira;

- Illargian zuloen ertzak irauntzen dute; baña Lurrean aizeak eta euriak urtutzen ditu, gastatu.

LUR-GIROAREN ALDAKETA

- Gure Lurraren giroa aldatzen doa.
- Bai, ez dau euririk normal egiten: legorraren ondoren, izugarritzko euri-jasak, bata bestearen ondoren.
- Eta, zer sortzen dauz arazo onek?
- Bat batean euriak eta aizeak sortzen dira, munduari jira osoa egin ondoren, bazterretan ondamendia lagata tokirik legorretan, udez gainezka leporaiño eta lur ezeek, gorri-gorri.
- Eta, zergaitik deitzen dautze El Niño?



- Nekazari peruarrek konturatu ziran lenengo aldiz, fenomeno ori bat-batean agertzen zala, eta Gabon inguruan sortu zalako, El Niño deitu omen eutsen eta, dana dala eta dena den, deitura orregaz ezagutzen dabe mundu osoan.

ILLARGIAN JAUNARTU

- 1969'ko Uztaillaren 21'ean zapaldu eben Illargia eurretari-ko bat Buza Aldrin izan zan eta an bertan artu eban Jauna.
- Nork emonda?
- Bere apaiz lagun batek sagratua kutxatillatxo batean eramán eban Eukaristia eta bertan artun.
- Orixe bai ez dala gauza erreza!
- Zoragarritzko une ederra izan omen zan beretzat eta sinismena ta maitasuna geitu omen ziran beure biotzean aundi-kiro. (V.N.5-VII-97).



SAKU-PATATA ETA ERAKUSTEKO SISTEMA BERRIAK

- Españiko Gobernuak eskoletan eten-gabeko aldaketak egiten ari da.
- Bai, gizona eta ori argitzeko sekulako kontua asmatu dute.
- Zer kontu?
- 1960 urteko ariketak onelakoak ziran: Baserritar batek patata-saku bat 1.000 pesetetan saldu du. Gastuak 5/4 izan dira, Zenbat irabazi dau?
- Eta, bigarrena?
- 1970 garren urtean:
- Baserritar batek patata kopurua B trukutzen du peseta kopuru M'rekin. Kopuru M 1000 pesetakoa da eta M'ren ale bakoitzak peseta 1 balio du. Margotu M'ren 1.000 pesetak. F gastuaren kopurua 200 ale gutxiago da M'ren kopurua baño. F'ren kopurua M'ren kopuruaren azpitik doa eta erantzun gal-

BARRIAK



dera oneri: Zenbat da B kopu-ruaren irabazia? B gorriz margoztu.

— Irugarrena?

— LOGSE da eta onela dio:

Baserritar batek saku-patata saldu du 1.000 pesetetan. Gas-tuak 800 pesetakoa da eta irabaziak 200 pesetakoa. Ekintza Azpimarratu "Patata" berba, eta alkarrizke-ta bat egin patatari buruz.

—Besterik ba al da?

Ondorengo aldaketa:

Ebaistok, nekazari burges latifundistak, elkor bat dire, 200 pesetarekin aberastu dana saku-patata baten geiegizko irabaziarekin. Aztertu zenbat falta dagozan idazkari onetan, eta ia zer egosten dozun orrelako lapurketa antidemokratikoei buruz.

EMAKUMEAK SALGAI

—Emegalduen arazoak diru geiago mogitzen du, drogak eta arroak baño.

—Ez al da ori gogortxo?

—Holanda'ko Amersfercot errian, erri guztien arteko billera bat izan da izen-buru onekin: "Emakumea ez dago salgai".

— Eta?

—Mundu osoaren tokien tokiko emakumeak erortzen dira Internazional elkarte baten sareetan.



—Mundu guztian zabaldua al dago sare ori?

—Billera orretan, emagalduen aide lanean ari diran, 76 emakume bildu dira, 19 erri-aldeetatik etorriak.

— Eta, nola darabiltzate emegalduek oiek batetik bestera?

— Geienak agiri falsoekin sartzen dituzte Europa'ko lurraldeetan.

—Baña, zelan sartzen dabez sare barrura?

— Erri beartsuetako emakumeak dira, eta, euren ustez, neskame edo

dendetarako laguntzalle bezela datoz; gero izaten dira kontuak.

—Zergaitik ez dute iges egiten?

—Europa'ra eldu orduko kentzen deutzez agiri eta pasaporte guztiak, eta bear bezelako lan baterako agiri barik gelditzen dira.

—Eta, zer?

—Nagusien esanetara makurtzen ez ba'dira, beuren errieta-ritzuliko dabezela meatzu egiten deutse.

—Orduan, lotsa ere bai orrela itzuli ezkeroz...!

—Esklabuen antzera gelditzen dira, merkatuak prest.

— Nundik datoz Europa'ra?

— Asia, Africa eta America— egoaldekoak, batik bat; baña, oraintsu, Rusia'ren inguruko errietatik asita dagoz.

Merkatu batetik bestera?

Bai, alan da izan be; orregaitik bildu da ainbeste jende Holanda'n; bañan, ainbeste diru tartean dalarik, zeñek kendu pisti oien ortzetatik aragi bigun gazte ori...

1948'garren Abenduaren 10'an aditzera eman ziran "Gizakien Eskubideak". Pasa dira 50 urte.

—"Eskubide guztiak, gizaki guztientzat".

Esatera ederra; betetzea, ordea, ez da gauza ain erreza!

Aspaldi onetan eskontzetan ez da astakeri gutxi egiten emazteen okerrerako.

—Jotzea gutxi dala, erail be egiten dabez.



LAZKAO'KO ASTOTXO

—Oraingo onetan famatua egin bear dozue Lazkao eta Lazkao-mendi.

—Zergaitik diñozu ori;

Zera, Lazkao-txiki orregaitik.

—Joxe Miel Iztueta'gaitik?

— Zergaitik izango da, ba?

—Ez, ez; Lazkao'ko Astotxok ez dau ezer ikustekorik Joxe Miel Iztueta'gaz.

— Zer festa da, ba, Astotxorena?

— Jose eta Maria,

Aurrarekin, erbestera aide egin zuteneko festa.

— Eta, Astotxo?

—Orixe, biderako eramaniko astoa.

—Gaurko egunez izan ba'litz, aurren kotxe txiki bat naiko izango eben.

Ez pentza gero, kotxe txiki ori asma-kizun polita da gaurko egunerako; baña orduan, Herodes'ek umetxoak ereiltzea erabaki zuenean, ondo asko etorri zitzaizen kortako astoa, Maria eta Jesus aurtxoaren lagungarri, Ejipto bidean.

—Eta, iges ori ospatzeko, Astoa dakarte platerera...?

—Geuk be, umeak giñanean, artaburuak ekartzen genion Astuari.

—Astoa eukien ala, mojatxoak komentuan?

—Benetakorik, ez; irudizkoa, bai, galanta eta ederra. Benetakoan neurrira, Maria eta Jesus gañean, eta Jose aurretik, makilla baten puntan pardela ebal.

—Astotxoren festa aundia al da?

—Bai, orixe. Beasain eta Ordizia'tik moltsoka datoz oiñez, Astoari bere oparitxo egitera.

—Eta, opari oien orde, zer ematen dute mojatxoak.

—Hostiak.

—Arranopola! Hostiak?

—Mezatarako egiten diran ogitxo zapal oiek, hostiak, ematen dabez ordañetan.

— Lazkao-txiki'ri here xelebrequerak nun ikasi, ez zitzaion palta erri onetan.

— Oraindik orain, Herodes eta erailiko aurtxoan gora-bera guztiekin, antzerki bat osatzen dute kalean. Ederto, alan be.



LANGINTZAREN III IRAULPENA ? NOR DA ARKINDUN EDO MEREZDUN ?

Gogo-emoile edo pentsalari izartzen naz batzutan, neure bizitzako ardurak, neurritz ala neurritik kanpo egiten dodazen. Beti, edo geinetan, agertzen da gogokoaren azpitik jakituna, ainbaten irakurritako gaien bat. Gaurkoa, Lopez eta Arriortua'tar inaki'ren gogapena da, langintzari buruz III'en iraulketa dala-ta.

Nik esango neuke orretaz, beste aukera berezi bat dala gizonentzat ordearen bidean jarraitzeko; au da: NEURRIAN edo ARDURADUNAREN ordekaritzan kokatzeko.

Badaukaguz ba, baietza eta ezetza. Nori?. Zalantza barik, izadiak daukan legeari!. Orregaitik agertzen gara, BERAK (JAINKOA) ipinitako lege-neurriaren ordezkari. Eta or agertzen dira GATA eta ARIMA. Leenengoari baietza emon ez gero, edo ezetza ordearen ardurari: GAI batu zale agertzen garela ezan gura dogu. Bigarrena, edo ordekaritzako ardura artzen ba dogu, ez dogu bakarrik azkatasunaren bidea besarkatzen, bai JAINKOA'ren agindua bete be egiten dogu.

Leenengo besarkatu ez gero, ardurabakoak agertzen garela esan bearrezkoa da; orregaitik: zentzuaren, amaitu ezinezko egarria betebearrean beti egon bearra ezango geunke, gaur zortzen dan lez. Norberak batu ez gero bes-teen ardurazko GAIA: dirua, lurraldea, gizona (bere ardura ta guzti), ez bearra baino ez da agertzen: nekea, negarra, illuna, ez jakina, inperioak, menperatasuna, eta abar. Eta ezin geran lez geratu ludi onetan BERAK DAUKALAKO bidea ipinita, bai martxan ere ipini egin gaitualako, "jokoz kanpo agertzen gara". Orduan, nai eta nai ez beste bidea artu bear dogu. Begitu!, non agertzen dan IRAULTZAREN derrigorral.

Bigarrena artu ez gero, bakoitza bere ardurarekin askatazunera doa; au da: bakotxak bere ardura beteaz JAINKOARENGANA. Orrek esan gura dau BAKOTXARI BERA, eta "SEÑOR TRABAJADOR" esan eta egiten dauan lez Lopez eta Arriortua'tar Inakik, ortik ere arrazoi galanta dauala.

Bide okerra artu ez gero, berezko muga beti agertzen da, apurtu dana ezin; eta aurrera tiretu ez gero, bereala ONDAMENDIA, PORROTA. Orregaitik izan bear dira MORALAK edo OITURA ONETAKOAK gure bearrezko lanak eta ardurak, BERAK agintzen dauen neurrian bideratuta, gure alegin guztia bideratzeko.

EUSKALDUNAK, EZ DAU ESATEN EDOZER GAUZAGAITIK "LEGE ZARRA!".

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1997'en ABENDU'ko 17'an

ERRIA

Euskalerria eta Gabonak
daukadaz begi aurrean
aro ederra ta giza aundiak
alkartasun beinenean;
goiko almenez oroi nai neuze
edertasunak aidean
euskal bizitza oroiturikan
gure izkuntz ederrean.

Ume arotik ikusten neban
begi biekin erria
arizti mendiz inguratirik
seme askoren kabia;
edertasunez poztuten jatan
nere euskaldun bizia
nik ez nekian nundik etorren
pozaren argi bidia.

Izkuntz eder bat entzuten neban
gurasoen min garbitik
zeru txiki bat lurak zirudin
alderdi guztietatik
gizontasuna ta andratasuna
agiri ziran nunnaitik
gizarte on bat aortzen ebela
buru biotz ta oiñetik.

Aurrez aur neukan erri ederra
egiaz inguratirik
buru guztiek naiago eben
egiz bizi argiturik;
zuzentasunak berez bai dakar
bizitz ederra barnetik
alkartasunez egokiturik
alderdi guztietatik.

Salto saltari ikusten nitun
eskolarantza bidean
neska ta mutil izketan gogoz
euskal izkuntz ederrean;
baserri maite zoragarriak
sortu eben itz erean
biotzak alai buruak argi
euskaldunaren senean.


Bein eskolara eldu ezker
aldatu zan bizitzea,
Zamoratarra izan genduan
eskola irakaslea;
bizitz giroan ez giñan bardin
maisu eta ikaslea
ai! zer ta zelan artu gengian
jakiturizko bidia.

PAULIN



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa